


HIZKUNTZA POLITIKA ETA HEZKUNTZA KONTU EMATEA 2017/2018

EKINTZA PLANAREN EBALUAZIOA – 2018



Tolosatzen aurrekontuak urtez-urte



Ildo estrategikoak plangintzaren baitan

1.5

Tolosa,
arnas-gunerantz

1.5.4

ETORKINEN ARTEAN EUSKARAREN
ERABILERA INDARTU

1.5.5

UDAL ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN
ERABILERA INDARTU

1.5.8

TOLOSARREN EUSKARA EZAGUTZA ETA KALE
ERABILERA HANDITZEA

Ekintzak

1.5.4 ETORKINEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Etorri-berriak euskalduntzeko **JARDUERAK** abian jarri.
- Etorri-berrien harrera protokolo bat martxan jarri, eskualdeko inmigrazio saileko teknikariaren, euskara sailaren eta Udate-Idazkaritzaren parte hartzearekin

2017

- Hainbat ikastaro egin dira, Euskara Plus proiektuaren barruan, Banaiz, bagara elkartearen eskutik. Oinarrizko hiztegia, esaldiak... Hiru arlo lantzen dira: ostalaritza, zaintza eta industria.
- Martxoa-Apirila. Euskara Plus Industria, soldadura arloan. Martxoaren 27tik apirilaren 6ra. Bina ordu eta erdiko zortzi saio.
- Maiatza. Euskara Plus Ostalaritza. Bina orduko hamar saio.
- Ekaina. Euskara Plus Zaintza. Bina ordu eta erdiko zortzi saio.
- Iraila. Euskara Plus Ostalaritza (mahai eta barra zerbitzua). Irailaren 4tik 15era.
- Iraila. Euskara Plus Zaintza. Irailaren 18tik 29ra.
- Iraila. Martxan dago Euskara Plus Industriaren bigarren ikastaroa.
- Bestalde, Aitzol Udal Euskaltegiak eskaintzen ditu etorkinentzako ikastaro bereziak Aisa programaren barruan.

2018

- Eskoletan, DBHn dauden etorkinentzako errefortzu eskolak egin dira ikasturtean zehar.

Betetze maila

2017



2018



Ekintzak

1.5.5 UDAL ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- **Zerbitzu publikoan euskararen erabilera areagotzeko JARDUERAK martxan jarri.**

2017

- Indarrean dagoen planaren gauzatzea eta jarraipenaz gain, KONTRATUZAIN programa martxan jarri: Udalarekin kontratua sinatuta daukate hainbat enpresak, zerbitzuak eskaintzeko. Bete beharreko hizkuntza-irizpideak ezarrita daukate eta horien betetze-maila neurtzen da.
- udal<ekin programan parte hartu. Gipuzkoako udaletako euskara teknikariei laguntzeko programa da. Programaren helburu nagusia da euskararen sustapen edo normalizazio-lanetan ari diren udal teknikariei laguntza zehatza ematea, langintza horren alderdi guztietan.
- Hainbat enpresarekin harremanetan jarri gara fakturak-eta euskaraz bideratzeko Udalarekin. Laguntza ere eskaini horretarako (ereduak, itzulpenak...).

2018

- Indarrean dagoen planaren gauzatzea eta jarraipenaz gain, KONTRATUZAIN programa martxan jarri: Udalarekin kontratua sinatuta daukate hainbat enpresak, zerbitzuak eskaintzeko. Bete beharreko hizkuntza-irizpideak ezarrita daukate eta horien betetze-maila neurtzen da.
- udal<ekin programan parte hartu. Gipuzkoako udaletako euskara teknikariei laguntzeko programa da. Programaren helburu nagusia da euskararen sustapen edo normalizazio-lanetan ari diren udal teknikariei laguntza zehatza ematea, langintza horren alderdi guztietan.
- Erabilera plana berritu da eta euskararen erabilera neurtzeko urratsak eman dira BIKAIN ziurtagiria lortzeko asmoz.
- Hizkuntz irizpideen jarraipena pleguetan.
- Administrazioarekin Kontratatzeko Lege Berriaren itzulpena, departamentu ezberdinek erabiltzeko.

Betetze maila



Ekintzak

1.5.8 TOLOSARREN EUSKARA EZAGUTZA ETA KALE ERABILERA HANDITZEA

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jardura:

- Euskalgintza alorreko eragileekin euskararen erabilera bultzatzeko ekimenetan parte hartu.

2017

- Erreferentziazko jardura izanik euskalgintza alorreko eragileekin euskararen erabilera bultzatzeko ekimenenetan parte hartzea, Galtzaundi Euskara Taldeak bultzatuta, maiatzaren 29an, Tolosan grabatu zen Arnastu Euskara lipdub erraldoia. Alde zaharreko kaleetan, eskualdeko 28 herrietako kultur eragile, kirol talde edota politikariak bildu ziren, euskarari behar duen bultzada eta arnasa emateko asmoz.
- Hitzarmena Galtzaundi Euskara Taldearekin.

2018

- Erreferentziazko jardura izanik euskalgintza alorreko eragileekin euskararen erabilera bultzatzeko ekimenenetan parte hartzea, Galtzaundi Euskara Taldeak bultzatuta, EUSKARALDIA kanpainaren aurkezpenaren baitan (8.000 euro). Eskualdeko 28 herrietako kultur eragile, kirol talde edota politikariak bildu ziren, euskarari behar duen bultzada eta arnasa emateko asmoz.
- Hitzarmena Galtzaundi Euskara Taldearekin. Tolosako Udalak 55.363,56 euro ematen dizkio.
- Hitzarmena Tolosa&Co Merkataritza elkartearekin. Euskara erabiltzeko laguntzak (kartelak, publizitatea,..) . Tolosako Udalak 7.300 euro ematen dizkio.
- Diru-laguntza lerroak:
- Aitzol Euskaltegitik kanpo euskara ikasten duten ikasleentzat diru-laguntza. Aurten 8.000 euro.
- Errotuluak euskaratzeko diru-laguntza. Aurten 4.000 euro.
- Enpresetan euskara planak sustatzeko diru-laguntza. Aurten 3.000 euro (ez dute eskatu).
- Tolosako Guraso Gazteen Hizkuntza Ohiturak aztertzeke ikerketa. SIADECOK egingo du eta 13.824,25 euro izango dira.
- Zinema euskaraz TINKO enpresaren bitartez.

Betetze maila

2017



% 50

2018



% 75